



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2015eko UZTAILAREN 28an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2015eko uztailaren 28an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^o Aranzabe Urruzola
Onintza Gorostidi Murua
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Xabier Mugika Letamendia
Koldobika Jauregi Zinkunegi

Bere ezin etorria azaltzen du: Uxue Etxebeste Eizagirre

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - 2015eko ekainaren 30ean egindako ez-ohiko bilkuraren akta.
 - 2015eko ekainaren 30ean egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Alkizako Apaiztegui baserriari loturik dagoen Aitzbeltz terrenoa segregatzeko baimena eskaera, F.I.**
- 5. Alkizako kokaturik dagoen Aitzbeltz terrenoa erosteko proposamena, hala bada.**
- 6. Alkizako Katalandegi baserriaren ondoan dauden euste hormak harriz estaltzeko obra baimena eskaera, J.I.G.**
- 7. Alkizako Etxaburua 1 eta 2 etxe aurreetan dauden arketak moldatzeko obra baimena eskaera, J.M.A.**
- 8. A.M. andreak eginiko idatziari txosten teknikoaren onespena, hala bada.**
- 9. Txantxangorri aldizkarian herriko jailetako publizitatea jartzeko onespena, hala bada.**
- 10. Aiztondo zerbitzuen Mankomunitateari 2015eko 1. Eta 2. Hiruhilabeteko ekarpena burutzea, hala bada.**
- 11. Beste batzuk.**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

12. Erregu, galdera eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2015eko ekainaren 30eko ez-ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- 2015eko ekainaren 30eko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

30/2015 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 1ekoa, 2015eko uztailaren 5etik 12a arte Alkizako udaleko bigarren Alkateordea den Jose Maria Aranzabe Urruzola zinegotziari Alkate moduan ditudan funtzio eta atribuzio guztiak eskuordetzekoa, ebazten duena.

31/2015 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 15ekoa, 2016 urterako Alkiza Udalerriko jaiegun bezala irailaren 8-a, osteguna proposatzea, ebazten duena.

32/2015 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 17koa, I.U.U. jaunari trakzio mekanikodun zergaren dagokion zatia bueltatzea 4257-CTY ibilgailuari dagokiona, behin betiko baja emateagatik, ebazten duena.

33/2015 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 17koa, J.R.A jaunari trakzio mekanikodun zergaren dagokion zatia bueltatzea SS-0589-BJ ibilgailuari dagokiona, behin betiko baja emateagatik, ebazten duena.

34/2015 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 22koa, Larraulgo Udalarri 200 aulki uztea, Larraulen uztailaren 31tik abuztuaren 3ra ospatuko diren San Esteban jaietan erabili ahal izateko, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

EBA ERKIZIA BRION	1.445,20
TOLOMENDI	150,00
CARROCERIAS ANOETA	324,62
BIDATEK	471,90
BANATZAILEA ELERTZALE	369,93
REPSOL BUTANO	79,87
REPSOL BUTANO	16,56
REPSOL BUTANO	59,46
REPSOL BUTANO	8,40
AUDAX	54,38
AUDAX	105,57
EUSKALTEL	118,05
SOLRED	116,60
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	654,31
AUDAX	503,70
AUDAX	189,56
CORREOS	4,64
ARGITU ASESORES	140,48
ULAHI ORONA	526,35
IBERDROLA	55,36
IZFE	1.812,69
MOVISTAR	77,92
MOVISTAR	98,75
AUDAX	39,70
AUDAX	125,21
AUDAX	42,77
EUSKALTEL	119,86
ANTONIO ELOSEGUI	15,40
QUISER	406,86
QUISER	1.162,21
AUDAX	132,05
REPSOL	50,31
REPSOL	217,90
AUDAX	56,10
AUDAX	10,97
AUDAX	108,32
AUDAX	13,22



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

AUDAX	36,17
MOVISTAR	81,82
MOVISTAR	66,68
ARGITU	140,48
AUDAX	450,68
AUDAX	171,48
SOLRED	60,45
GAS NATURAL FENOSA	58,29
AUDAX	26,70
AUDAX	80,14
AUDAX	483,38
AXA AURORA VIDA	213,66
AXA AURORA VIDA	799,83
CARPINTERIA ATARI	19,60
TINDU MARGOAK	26,69
BULEGOAK	165,27
RECAMBIOS IBARRA	77,37
BERRI LANTEGIA	77,90

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **12.921,77** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

ALKIZAKO APAIZTEGUI BASERRIARI LOTURIK DAGOEN AITZBELTZ TERRENOA SEGREGATZEKO BAIMENA ESKERA, F.I.

Ikusirik F.I.U. andreak eginiko eskera, non Apaiztegi baserriko ekialdeko erdiari loturik dagoen "AITZBELTZ" terrenoa segregatzeko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Apaiztegi baserriko ekialdeko erdiari loturik dauden terrenoen deskribapena ondorengo dela:

.../...

1)La antepuerta perteneciente a dicha media casa, existente en su lado Sur. Linda: Norte, con la misma casa; Este, con la heredad Umantxo; Sur, con el camino carretil; y or Oeste, con la antepuerta restante perteneciente a la otra mitad de la casa. Tiene cincuenta y cinco metros cuadrados (55m2).



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2) Los terrenos sembradíos denominados *ETXEAZPIKO-SOROA Y UMANTXO* y los montes castañas *OKELAZKO-ZUBIALDEA* y robledales *OKELAZKO-ARIZTIA* y *OKELAZKO-EGIA* y argomal y semiherbal *OKELARGAÑA* unidos y comprendidos bajo un perímetro sitios en el indicado Barrio de Azaldegui. Linda: Norte, con terrenos de los caseríos *Etxaun-berri*, *Azaldegui-etxeberri* y *Etxesagasti*; Este, con *Etxesagasti* antepuerta y terreno *Etxeburua* y terreno de *Azaldegui-etxeberri*; Sur, con camino carretil, con la misma casa y antepuerta de *Apaiztegui*, con terrenos de *Azaldegui-etxeberri*, terreno sembradío propio de Doña María Ramona Juana Antonia Legarra, con terreno sembradío de la Casería *Etxaun*; y Oeste, con terrenos de las caserías *Etxabe*, *Etxano* y *Etxaunberri*. Tienen noventa áreas noventa y cuatro centiáreas de sembradío, veinticuatro áreas ochenta y seis centiáreas de manzanal, treinta y seis áreas setenta y cuatro centiáreas de herbal y ribazos, setenta y tres áreas ochenta y cinco centiáreas de castañal, doscientas un áreas cuarenta y dos centiáreas de arbolado robledal y abedules, treinta y cinco áreas noventa centiáreas de terreno semiherbal y cincuenta áreas cincuenta y siete centiáreas de argomal. En total suman quinientas catorce áreas y veintiocho centiáreas.

3) El terreno sembradío llamado *BERGARA*, sito en dicho Barrio de Azaldegui. Linda: Norte, con terreno de Doña María Ramona Juana Antonia Legarra: Este y Sur, con terreno de la casería *Etxesagasti*; y Oeste, con camino carretil. Tiene cuatro áreas.

4) El terreno sembradío llamado *SOROTXO*, sito en el mismo barrio. Linda: Norte y Este, con terreno de la casería *Etxesagasti*; Sur, con terreno de *Sarobe*; y Oeste, con terreno de Doña María Ramona Juana Antonia Legarra. Tiene dieciséis áreas siete centiáreas de sembradío y tres áreas setenta y seis centiáreas de zarzal con árboles.

5) Los terrenos unidos llamados *SAROBÉ-ALDEKO-GAZTAÑADIA Y ORIETA-BURUA*, sitios en el mencionado barrio y jurisdicción. Linda: Norte, con terrenos de la casería *Sarobe* y Doña María Ramona Juana Antonia Legarra: Este con camino carretil; Sur, con terreno de *Sarobe*; y Oeste, con terreno de *Etxesagasti*. Tienen noventa y seis áreas setenta y cinco centiáreas de castañal, ciento cuarenta y cinco áreas, setenta y ocho centiáreas de argomal.

6) El terreno robledal llamado *ARZAYAGA* o *LARRUMBIDEKO-ITURRI-ALDEA*. Linda: Norte y Este, con terreno de los herederos del finado Señor Aldasoro; Sur, con el río que baja desde Alkiza para *Asteasu*; y Oeste, con terrenos de las caserías *Arizmendi* y *Larrola*. Tienen ciento cincuenta áreas cincuenta y seis centiáreas.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

7) El terreno robledal, helechal y herbal llamado ITURBEGUIETA, sito en el referido barrio y jurisdicción de Alkiza. Linda: Norte, con terreno de la casería Etxabe; Este, con terrenos de Arizmendi; Sur, con terrenos de Don Martín Otegui y los de la Casería Azaldegui-etxeberri; Y Oeste, con terreno de Garmendia. Tiene cincuenta y nueve áreas diecinueve centiáreas de robledal y helechal y ochenta y cuatro áreas sesenta dos centiáreas de herbal.

8) El Terreno hayedo llamado AITZBELTZ sito en el barrio de Ernio de la Villa de Alkiza. Linda: Norte y Este, con terreno de la casería Arizmendi; Sur, con terreno de Doña Manuela Ramona Juana Antonia Legarra y con el de Etxesagasti; Y Oeste, con la peña Aitz-beltz. Tiene trescientas dieciséis áreas setenta y seis centiáreas.

Inscripción: En el Registro de la Propiedad de Tolosa, al tomo 629, libro 18, folio 2016, finca 152, inscripción 10ª.

Ikusirik F.I.U. andreak terreno hauetatik 8. Terrenoa segregatu nahi duela, hau da AITZBELTZ terrenoa.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: F.I.U. andreak eginiko eskaera onestu, hau da Apaiztegi baserriko ekialdeko erdiari loturik dagoen "AITZBELTZ" terrenoa segregatzeko baimena ematea, 31.676 metrotakoa, ondoren Alkizako Udalari saltzeko, Ernio Gazume Kontserbazio eremu bereziko gunearen barruan daudenez. Finka matriza, etxearen okupazioa kontutan izan gabe, 107.556 m²-rekin geldituko direlarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri F.I.U.andreari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

ALKIZAN KOKATURIK DAGOEN AITZBELTZ TERRENOA EROSTEKO PROPOSAMENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Udalak interesa duela, Gipuzkoako Foru Aldundiak ateratako diru-laguntza baten barruan, Ernio Gazume Kontserbazio eremu bereziko gunearen barruan dauden terrenoak erosteko.

Ikusirik F.I.U. jaunak interesa dutela Ernio Gazume barruan dagoen terreno bat saltzeko, konkretuki AITZBELTZ terrenoa, 31.676 metrotakoa. Alkizako Udalak hektareako 5.000 euro ordaintzen ari da eta terreno jabea diru kopuru honekin ados dago.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udalak, F.I.U.andrearen jabetzakoa den AITZBELTZ terrenoa erosteko onespena ematea, 15.838,00 eurotako kopuruan.

BIGARRENGOA: Alkate-Lehendakaria den Jon Umerez Urrezola jauna ahalmenu, erabaki hau gauzatzeko dagozkion dokumentuak sinatzeko.

SEIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO KATALANDEGI BASERRIAREN ONDOAN DAUDEN EUSTE HORMAK HARRIZ ESTALTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, J.I.G.

Koldobika Jauregi zinegotzia une honetan bertaratzen da, 20.10 orduetan.

Ikusirik J.I.G. jaunak eginiko eskaera, non Alkizako Katalandegi baserriaren ondoan dauden euste hormak harriz estaltzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektuak, 2015eko uztailaren 24an eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO KATALANDEGI BASERRIAREN ONDOAN DAUDEN EUSTE HORMAK HARRIZ ESTALTZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

*J.I.G.A. jaunak, Katalandegi baserriaren ondoan dauden euste hormak harriz estaltzeko obra baimena eskatzen du, lanen batzbesteko aurrekontua eta bi argazki aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, harriz estaltze edo forratze lanak eraikinari sarrera emateko dauden bi euste hormetan egongo dira, lanen aurrekontua 2.030,00€-koa izanik (BEZ-a gabe).

Alkizako Hiri antolaketako 6º artikulua, egun dauden mota guztietako eraikinen eta instalazioen kanpoaldeko itxuraren aldaketek hirigintza lizentzia behar dutela esaten du.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Katalandegi baserria Alkizako lur hiritargarrin kokaturik dago, bereziki UEU23 hirigintzako gauzatze unitatean. Arau subsidiarioen arabera eraikina katalogatua dago eta 1997 ko urriaren 22ko 5781 Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen erabakiaren arabera, A motako Balizko Arkeologia guneen zerrendan sartua dago (eraikinaren hormez barruko esparrua hartzen duena, alegia).

Alkizako lur hiritargarriko UEU23 fitxaren irizpide nagusia eraikinaren mantentzea da.

1996-ko Alkizako hiri lurzoruko araudi orokorraren 41º artikularen arabera, kanpoaldean geratzen diren euste hormak bistako harlangaitzezkoak izango dira.

Hau honela izanik, eskarian azaltzen diren lanak legeztagarriak direla informatzen dut.

**Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

**Lanak amaitzean, eraipen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean."*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- J.I.G. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Katalandegi baserriaren ondoan dauden euste hormak harriz estaltzeko obra baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO ETXABURUA 1 ETA 2 ETXE AURREETAN DAUDEN ARKETAK MOLDAKETZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, J.M.A.

Ikusirik J.M.A.U. jaunak eginiko eskaera, non Alkizako Etxaburua 1 eta 2 etxe aurreetan dauden arketak moldatzeko obra baimena eskaera egiten duen.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektuak, 2015eko uztailaren 24an eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO ETXEBURUA 1 eta 2 ETXE AURREETAN DAUDEN ARKETAK MOLDATZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

J.M.A.U. jaunak, Etxaburua 1 eta 2 etxe aurreko arketen lotura aldatzeko baimena eskatzen du, lanen batazbesteko aurrekontua ematen duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Aurkeztutako eskaeran gaur egun etxe aurrean dauden ur zikinen arketen lotura aldatu nahi dela esaten da. Lan hauen kostua BEZ-a gabe 400€-koa da.

Hiri antolaketako 6.4 artikularen arabera, egun dauden mota guztietako eraikinen eta insatalazioen kanpoaldeko itxuraren aldaketek hirigintza lizentzia behar dute.

Etxaburua 1 eta 2 etxeak Alkizako lur-hiritargarren kokaturik dade, bereziki UEU7 unidatean.

2015-eko apirilean sinatzen duen teknikari honek ikuskaritza bisita egin zuen, arketa hauek koipe bereizleak direla ikusiz. Jabekideen esanetan, arketen funtzionamendua desegokia da eta arazo asko ematen dituzte.

Mota honetako arketak garajeetan edo eta koipea ekoizten duten jardueretan (jatetxeak, industriak, etbr.) erabili oi dira.

Dagokigun etxebizitza erabilera batentzat, ez da beharrezkoa mota honetako arketa bat.

Beraz, gaur egun dauden arketen egokitzapen baten aurrean aurkitzen garenez eta aurkeztutako lanak Alkizako araudiarekin bat egiten dutenez, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.

**Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

**Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean.”*



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, Jose Mari Aranzabe zinegotziaren abstentzioarekin, gehingoz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- J.M.A. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Etxaburua 1 eta 2 etxe aurreetan dauden arketak moldatzeko obra baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

A.M. ANDREAK EGINIKO IDATZIAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik A.M. andreak Udaletxe honetan aurkeztutako idatzia, non dioen egiten ari den etxe berriko garajearen ur jauzi handiak daudenean, bertan dagoen hodia ataskatu egiten dela eta ura gainezka egiten duela.

Beraz, Udalarari eskatzen dio aipaturiko arazoari irtenbide bat bilatzen laguntzeko.

Ikusirik, 2015eko ekainaren 30ean egindako Udalbatzarrean gaia tratatu zela eta Udal Aholkulari Teknikoari zegokion txostena eskatzea erabaki zela.

Ikusirik, Udal Aholkulari teknikoak, 2015eko uztailaren 24ean egindako txostenean dioena:

“ALKIZAKO LETE APARTEMENTUEN SANEAMENDUARI BURUZKO TXOSTENA

A.M.A. andreak, Lete apartamentuen saneamendu hodiarekin dituzten arazoei aurre egiteko, Alkizako udalarari irtenbide bat bilatzen laguntzeko eskatzen dio. Eskaria ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Eskaeran, euri jasa handiak direla eta, saneamenduko hodia trabatu egiten dela adierazten da, ura erdi-sotora sartuz.

Lete apartamentuak Alkizako lur-hiritargarran kokaturik daude, bereziki UEU 5.1 unidatean.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Eraikinak 2011-an obra baimena jaso zuen. Udaletxean ez da obra amaierako dokumentaziorik jaso oraindik.

2015-eko ekainean sinatzen duen teknikari honek ikuskaritza bisita egin zuen, eraikin berriko eta udal saneamenduaren arteko lotura zuzenean egin dela ikusiz.

Hiri antolaketako 17º artikulua araber, urak arketa sifoniko eta erregistro putzu bitartez isuriko dira udal estolderiara.

Alkizako urbanizazio araudiko saneamenduari buruzko 33.1.3.2. artikulua, erregistro putzuez hitzegiten du eta honela dio:

*Eroanbideen **gurutzagune guztietan**, norabide aldaketetan, hondar zuloetan, urlasterretan eta sareko beste puntu berezi guztietan, erregistro putzuak eraikiko dira.*

Eraikuntzako kode teknikoaren HS5 ataleko 3.1 puntuak, eraikinen hodi biltzaileen ur isuriak udal estolderian putzu edo arketa bidez egin behar direla esaten du ere.

Honen arabera, etxe berriko eta udal saneamenduko lotura desegokia da eta Alkizako araudiarekin bat ez datorrenez, obra amaiera bano lehen zuzendu egin beharko da.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Onintza Gorostidi zinegotziaren abstentziorekin, gehiengoz, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: A.M. andreak eginiko eskaerari erantzutea, Udal aholkulari Teknikoak eginiko txostenaren bitartez.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

TXANTXANGORRI ALDIZKARIAN HERRIKO JAIETAKO PUBLIZITATEA JARTZEKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, Txantxangorri aldizkarian, Alkizako jaien publizitatea jarri nahi dela, horretarako eskatu direlarik hauen aurrekontua. Proposamenen artean, bi modulutako publizitatea jartzea egokiena dela erabakitzen delarik. Bere kostua 60 euro (BEZ-a gabe) delarik.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek, aho batez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Alkizako jaien publizitatea Txantxangorri aldizkarian jartzea. Bi moduluko iragarkia jarriko delarik. Bere kostua 60 euro izango delarik.

BIGARRENGOA.- 60 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENGOA.- Erabaki honen berri Belako publizitatea eta komunikazioari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2015 eko 1. Eta 2. HIRUHILABETEKO EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2015eko uztailaren 28an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2015 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 15.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Alkizako udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

- Gizarte zerbitzuak: 9.000,00 euro
- Kultura: 6.000,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 15.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2015 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 9.000,00 euro
- Kultura: 6.000,00 euro

BIGARRENA.- 15.000,00 eurotako gastua onartzea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

11.1. ALKIZAKO UDALARENTZAT HIRIGINTZA ETA ARKITEKTURARI BURUZKO AHOHKULARITZA ZERBITZUEN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza zerbitzua, Alkizako Udalean eskaini nahi dela, astean bi ordu Udaletxean dagokion zerbitzua eskainiaz.

Ikusirik, orain arte Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektoari aurrekontu bat eskatu zaiola, aipaturiko zerbitzua prestatzeko.

Ikusirik Eba Erkizia Brion arkitektoak aipaturiko aurrekontua aurkeztu duela, ondorengo diolarik:

“ALKIZAKO URDALARENTZAT HIRIGINTZA ETA ARKITEKTURARI BURUZKO AHOHKULARITZA ZERBITZUEN LAN PROPOSAMENA

Proposamen honen helburua, Alkizako Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza gidatuko dituzten irizpideak zehaztea izango da.

1.-GARATU BEHARREKO LANAK

Egin beharreko lanak hurrengoak izango dira:

- *Herritarren hirigintza kontsultei arreta zerbitzua.*
- *Obren kontrola.*
- *Obra txikien baimenari buruzko espedienteen txostenak.*
- *Obra handien baimenari buruzko espedienteen txostenak.*
- *Sailkatutako jardueren baimenari buruzko txostenak.*
- *Jarduera salbuetsien baimenari buruzko txostenak.*
- *Planeamendu tresneri buruzko hirigintza txostenak.*
- *Gestio tresneri buruzko hirigintza txostenak.*
- *Hirigintza diziplinako txostenak.*
- *Segregazioei buruzko txostenak.*
- *Hirigintza balorazioak.*
- *Alkateak, udal bazkideek edo udal idazkaritzak eskatutako beste edozein motatako txosten edo azterketak egitea.*

Lan hauetaz gain, eta udalak eskaturik hirigintza aholkularitzarekin loturiko lan eta informazio bileretara joango da, bai udaletxean bertan edota kanpo administrazioetan, ala nola Diputazioan, Eusko Jaurjaritzan...

Era berean eta kasua balitz, obra eta hirigintzako udal batzordeetara joango da, udal bazkidek beraien erabaki hartzeetan aholkua emateko.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2.-LANTOKIA

Herritarrentzat aholkularitza zerbitzuak eta bestelako hirigintza lanak, astero bi orduz udaletxean egingo dira.

Denbora honetatik kanpo egin ezin diren txosten edo aholkularitza lanak, sinatzen duen arkitekto honen bulegoan egingo dira, eta gehienez, beraien eskaeratik bi aste barruan entregatuko dira.

Bilerei dagozkien beste lanak, udaletxean bertan edo dagokion administrazioan burutuko dira.

3.-ORDAINSARIA

Udaletxean hileroko aholkularitza lanetik jasotako ordainsaria 525,00€ (BEZ-a gabe) izango da.

Ordu hauetatik kanpo gertatzen diren lanen ordainsaria, egindako lanordu kopuruetan eta joan-etorrietan erabilitako denboran neurtuko da, hileroko 52,50€/orduko fakturaturaz, ondoren dagokion BEZ-a gehituz.

Hurrengo urteei dagokienez, kopuru hau " kontsumo prezioen indiziea"-aren arabera gehituko da."

Ikusirik aipaturiko kontratua, kontratu txiki bat dela ez delako 18.000 eurotako gastua gainditzen.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: Eba Erkizi Brion Arkitektoari, Alkizako Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza zerbitzuaren kontratua esleitzea, urtebetez, 2015eko irailean hasiko delarik bere zerbitzua prestatzen. Astean bi orduz, Alkizako Udaletxean bere zerbitzua eskainiko duelarik, hilean 525,00 eurotako diru-kopuruaren truke. Aipaturiko ordutegi horretarik aparte, Udalak eskatutako lanak egiteagatik fakturako duen ordainsaria 52,50€/ordukoa izango da.

BIGARRENA: Eba Erkizia Brion Arkitektoari jakinaraztea, Alkizako Udaletxera bertaratu beharko duela dagokion kontratua sinatzera.

HIRUGARRENA: Jon Umerez Urrezola Alkate-Lehendakari jauna aipaturiko kontratua sinatzeko ahalmena ematea



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

11.2. TOLOSALDEKO LANDA GARAPEN ELKARTEAK AURKEZTURIKO IDATZIAREN BERRI EMATEA.

Ikusirik Tolomendi-k "Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak" aurkezturiko idatzia, non ondorengoa azaltzen duen:

2015eko apirilak 22an Tolomendiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen zein proiektu izango ziren lagungarriak eta proposamen hau Diputaziora bidali zen behin betiko onarpen eman diezaion.

Ebazpena 2015eko ekainaren 8koa, Gipuzkoako Foru Aldundiak Landa Garapen eta Turismo Departamentua eta Tolomendi Landa Garapeneko Elkartearen artean sinatutako hitzarmenean onartuta.

*Alkizako Udalari ondorengo proiektuarentzat diru-laguntza onestea:
-Errepide nagusitik Ur Mara eta hainbat sailetara doan bidea, onartu zaion inbertsio lagungarria % 50 izan da.
Diru-laguntza 2016ko aurrekontuen gain joango da.
Proiektua gauzatzeko eta diru-laguntza tramitatzeko beharrezko diren agiriak aurkezteko epea, 2016ko urriaren 31arte izango da eta ez da luzapenik eskatzeko aukerarik izango.*

.../...

Bertaratuek jakinaren gainean gelditzen dira.

11.3.AUTORE ETA ARGITARATZAILEEN ELKARTE NAGUSIAK "SGAE" BIDLITAKO IDATZIAREN BERRI EMATEA

Ikusirik Sgae-tik hainbat idatzi jaso dituela Alkizako Udala, azkena, jakitera ematen diolarik Alkizako Udalari ordaindu gabe dituela idatzi honetan zerrendatzen diren hainbat faktura, Udalak antolaturiko zenbait ekitaldik sortu dituen autore-eskubideei dagozkienak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Gaia mahai gainean uztea.

11.4. ALKIZAKO BIDA TEKNOLOGIAREN BIDEZ EGINDAKO HERRIKO



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HONDAKIN URAK ARAZTEKO PLANTAN “EQUIPO DE PRETRATAMIENTO PARA LA INSTALACION EDAR VERMIFILTRO DE ALKIZA” INSTALATZEKO ONESPENA EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Bidatek-ek aurkeztu duela “Equipo de pretratamiento para la instalación Edar vermifiltro de Alkiza”-ren aurrekontua, guztira 2.806,00 euro direlarik.

Ikusirik, Jose Ramon Hernandez zinegotziak, bertaratuei berri ematen diela Alkizako Bida teknologiaren bidez egindako herriko hondakin urak arazteko plantan aipaturiko ekipoa jarri behar dela, araztegiak behar bezala bere lana egin dezan.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Bidatek-ek aurkezturiko aurrekontua onestea, Equipo de pretratamiento para la instalación EDAR vermifiltro de Alkiza, Alkizako Bida teknologiaren bidez egindako herriko hondakin urak arazteko plantan jarri ahal izateko. Bere kostua 2.806,00 euro direlarik (BEZ-a gabe).

BIGARRENA: 3.395,26 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri BIDATEK-eri ematea.

11.5. HERRI LANGILEARI LAGUNDUKO DION HERRITAR BAT KONTRATATZEKO DEIALDIAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, herriko festa aurretik, herri langileak egiteko lan asko egoten dela.

Ikusirik beste urtetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak lan hauetarako diru-laguntzak kaleratzen dituela, aurtengo urtean ez dituelarik atera.

Ikusirik, beharrezkoa ikusten dela herritar bat kontratatzea, herriko langileari bere lanetan laguntzeko, festak antolatu eta beste hainbat lan egiteko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Bando bidez, herri langileari bere lanetan lagunduko dion herritar



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

bat kontratatzeko iragarkia argitaratzea. Egingo dituen lanak, herriko jaien prestaketan laguntzea eta beharrezkoak diren beste hainbat lan. Kontratua hilabetekoa eta lanaldi osokoa izango da. Ezinbestekoa izango da, LANBIDE-n apuntatua egotea. Izena emateko epea abuztuaren 20an bukatuko delarik.

HAMABIGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.00 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.